

Atarikoa

Euskal jardule juridikoen eskuetara dator euskarazko testu hau, egun indarrean dagoen 1889. Urteko Espainiako Kode Zibilarena, hain zuen ere. Horrela jokatzeko arrazoriak askotarikoak dira, zuzenbidearenak nahiz hizkuntzarenak.

Hasteko, Espainiako Kode Zibilaren indarra, harreman juridiko pribatuen araubide nagusia baita hori, dela Nafarroan, dela Euskal Autonomia Erkidegoan, betiere, horiek dituzten euren Zuzen zibil berezkoei kalterik egin gabe. Hasian hasi, ezin baztertu Kode Zibilak duen balio ordezailea bi lurralde horietan, bakoitzean maila desberdinetan bada ere.

Aurrekoa berrindartzen du Espainiako Konstituzioak, 149.1.9 artikuluan ezartzen duenean Estatuaren ahalmena legeria zibilaren gainean, *1. Honako gai hauek estatuaren eskumen eksklusiboak dira: 8) Legegintza zibila; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, forudunak nahiz bereziak, iraurarazi, aldatu eta garatu ahal izango dituzte, halakoak direnetan. Edozein kasutan, arau juridikoen aplikazio eta eragingarritasunari buruzko erregelak, ezkontzeko formei dagozkien harreman juridiko-zibilak, erregistro eta agerkari publikoen antolakuntza, kontratuetakote betebeharren oinarriak, lege-gatazkak konpontzeko arauak eta zuzenbidearen iturburuak zehazten dituztenak, betiere, azken kasu horretan, foru-zuzenbidearen edo zuzenbide bereziaren arauak errespetatuz.*

Arrazoi hori sendotzen du begien bistakoa den lege testu berekoren 3. Artikuluak, bertan ezartzen baita gaztelaniarekin batera beste hizkuntza batzuen ofizialtasuna ere: *1. Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea. 2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritik. 3. Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.*

Puntu honetan arlo juridikoa eta linguistikoa bat datozela ohartu ondoren, argi dago orain arteko ments historikoa gainditzea, alegia Espainiako kode nagusiak gaztelaniaz besteko hizkuntzetan formulatzea, engaiamendu tinkoa dela, batik bat Europako Kontseiluak onetsitako *Hizkuntza Erregional eta Gutxituen Gutuna* delakoan; 9. Artikuluan.: *3. Aldeek konpromisoa hartu dute hizkuntza erregional eta gutxituetan emateko estatuko lege-testurik garrantzitsuenak eta hizkuntza horien erabiltzaileei bereziki dagozkienak, testuok beste modu batean erabilgarri daudenean izan ezik.*

Horiek horrela, ahalegin hau ez da berria eta aurreko hiru argitaralditan paperean eta Deustuko Unibertsitatearen, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal erakundearen webgunetan ere jarri da herritarren eskuetan Kode Zibilaren euskarazko testua.

Legeak, hala ere, ez dira aldaezinak. Eta arlo zibilean bereziki, lege eraldaketak ugari gertatu dira Kode Zibilaren argitaraldi elebiduna gaztelania-euskara 2011. Urtean azkenengoz egin zenetik. Aldaketak, esan gabe doa, esparru juridikoan (hortxe dago, besteak beste, *8/2021 Legea, ekainaren 2koa, zeinaren bidez legeria zibila eta prozesala*

erreformatzen baitira desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko...) nahiz esparru linguistikoan, testu ugari argitaratu baitira euskaraz azken urteetan Estatutuko Aldizkari Ofizialean (EAO aurrerantzean), Madrileko Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmenari esker.

Jada badira lege eraldaketa horien euskarazko testuak, EAO delakoan argitaratuak. Falta da, hala ere, ikuspegi orokorra, legelariak behar duena Kode Zibila aplikatu, interpretatu edo azaltzen duenean. Hartara, argitaraldi berri hau, aurretiazkoak aintzat hartzen dituenak, eta eraldaketa berri horiek barneratzen dituenak. Hori egiteko, lehen abiapuntu moduan, *Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vascaren* irizpideen barnean jokatzeko du eta bereziki *Euskaltzaindiaren Hiztegia* erabiltzen du, horiek baitira egundoko lanabesak testu hau eguneratzeko prozesuan.

Hartara, liburu berria dator *Iusplaza* Bildumara, hain zuen ere, bilduma horren ezaugarriak berrestera datorrena. Batetik, lege-testu oinarrikoak barneratzea eta gizarteratzea, molde elebidunean, gaztelania-euskara, euskara-gaztelania, bi hizkuntza ofizial horien terminologia eta esamoldeak bilduz, bi-biak gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarri den Zuzenbide zibilaren eramaileak baitira. Hainbatez, halakoak dira, ahotsez zein idatziz, euskararen erabilera agerikoak, eta horiek ahalbidetzen eta egiaztatzen dute tankera honetako argitaraldia, jardule juridikoak ez ezik, herritar guztiak ere kontuan hartzen dituenak.

Euskararen normalizazio eta normatibizazio zeregin horretan, estuak eskaintzen dira takera jakin batez, alegia bi zutabetan eta arukibide analitikoak ere barneraturik, gaztelania-euskara, euskara-gaztelania. Horrek berebiziko balioa ematen die testuei Zuzenbidearen munduan eta bistan da, hizkuntzalaritzaren arloan ere. Edu berean, aurreko horiek badute euren data itxiera, lege-testuen gaurkotzearekin batera, eta argitaraldia egiten den unean bertan kokatzen dena. Hori dela bide, gerogarreneko eguneratze elebidunak erraztu egiten dira.

Argitaraldi honetan bete-betean errespetatu dira Estatuko aldizkari Ofizialean euskaraz argitaratu diren lege-testuen zatiak. Nolanahi ere, zuzenketa nemiño batzuk egin dira, errakuntza batzuek ekarri dituztenak arteztu nahian. Bestelakoetan, beharbada, harrigarri gerta dakizkioke erabiltzaileari halako desberdintasun terminologiko txikiak, Estatuko Aldizkari Ofizialean euskaraz argitaraturiko zatien eta bestelako iturrien artekoak, horien jatorria baita aurreko ahaleginetan zein euskaraz argitara gabeko testuetan argitarazleak egin behar izan duen lana. Ez dira horiek, inondik ere, gaindi ezineko oztopoak halako testuak eskuartean erabiltzeko orduan.

Beste behin ere, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Thomson Reuters-Aranzadi argitaletxearekin eta Euskal Herriko Notario Elkargoarekin batera, berebiziko ekimena ondu dute gizarteraren esku jartzeko, modu inprimatu zein wegbune bidez (www.iusplaza.com), lege-testuen liburu elebidun hau, gaztelaniaz eta euskaraz, eguneroko tresna izan nahi duena gizarte elebidun batentzat, eta bide beretik geroko ahalegin aitzindari eta bultzagilea.

ANDRÉS M. URRUTIA
Argitarazlea